

EKAITZ GALIA

KAE TEMPESTEN ANTZINAKO BERRI-BERRIAK
LIBURUAREN IRAKURRALDIA
MARTXOAK 30, 20:00, YAUSIKAN WWW.HKL.EUS





EKAITZ GAUA

“Antzinako berri-berriak”
liburuaren irakurraldia

KAE TEMPEST

itzulpena: ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN

MARTXOAK 30, 2023

20:00 YAUSIKA

Epopeia forma hartzen du Tempesten lanak honakoan: poema epiko luze bakarra da, heroi eta jainko-jainkosen ekintza gogoangarriak goraipatzen dituena. Are, baditu epika klasikoaren beste zenbait ezaugarri: *in media res* hasiera, sarreran gaiaren aurkezpena, epitetoak eta errepi-kapenak, inframundura jaitsiera, besteak beste. Kontua da, gaur-gaurko jainko eta jainkosez ari dela, XXI. mendeko Londresko auzoei buruz, kontua da musatzat gaituen entzule horiek, irakurle horiek ari dela inbokatzen Tempest, gure inguru hurbileko heroi modernoak suma ditzagun.

Eguneroko ekintza xumeetan ari diren herritarrengan ikusten ditu ekintza jainkotiarrek idazleak, senarraren desleialtasuna jasaten duen emakumearen egonarrarian, aitarren maitasunik eza lagun-minarenean aurkitzen duen gaztearengan, komikigile izan nahi duen gaztearen ambizioan, beldurrari adorez erantzuten dion neskaren begietan. Azken finean, halakoak ziren ere Grezia klasikoko jainko-jainkosak, lurtarrak, imperfektuak, hala gidatzen zituen gure antzera amorruek, desengainuak, samurtasunak. Igar daiteke idazleak pisu handia jartzen duela maitasunaren funtzio osatzailean, zenbaitetan idealizatuwegia akaso, epikaren logikak desmuntatzen dituen lan honetan. Hala ere, harreman akastunak dira azaleratzen dituen guztiak, errealak, eta egia da maitasunak forma desberdinak hartzen dituela horietan. Epopeia moderno bat, beraz, maitalei, damutuei, kinkiei, kamarerei; gorazarre eder bat auzotarrei, horixe da *Antzinako berri-berriak*.

IRATI MAJUELO
Berria, 2022-10-23

Oraindik gara jainkozko

ITZIAR UGARTE IRIZAR

DISTRAZIOZ betetako aro azkar, lehiakor, saturatu, inbertsonala. Horra egokitu zaiguna, neurosiak jota beren buruen kontra erdibituriko jendartea, Jungek esango lukeenez, dagoen lekuan egon ordeztu beti etorriko denaren zain dagoena. Gorago heldu, gehiago eduki, egiten ari garena ez beste zerbait egiten egon, espazio gehiago, denbora gehiago, beste gorputz bat, beste lan bat, bestelako harreman sare bat —“naizen hau baino gehiago nahi dut izan”—. Jendearen etsipenetik edaten du gaurko munduak, eta halako batean gertatzen da, norbaitek, zerbaitek egiten du *krak* eta aurki bistaratzen da muin-muineko aferak: zer eskatzen ari gara, azkenean, bizitzari? Hainbeste zarata eta hainbeste zarata, eta oinarritzko premiak “maitatuak izatea eta aurrera segitzea” baino ez? Hala balitz ere, jaiki behar da eguneroko, horkailua bete, zaharra zaindu, haurra eskolaratu, norberaren gogoak ez guztiz deskuidatu.

Soil-soilik orainean hauteman dezake gizakiak mundua: argia, hotza, atximurra. Eta inoiz baino gehiago, oraina baino pilatzen ez dakien jendea omen gara gaur, ez duena asmatzen beste ezer sedimentatzen; oraina opaltzen duena biharko salbazio baten izenean —“etorkizunaz mintzo ziren erasoan hartu beharreko zeozer bailitzan”—. Baina ez gara gaur-gaurkoak, jaio aurretik munduratu gintuzten, eta iraganak, antzinatearen esperientziak inguratzen gaitu —“Begira: beti izan dugun guz-

tia da hemen duguna”—. Beste aldera begiratu daiteke, baina berdin-berdin eragiten digu. Eta hala gertatzen da gero: gure sentimendu eta keinuak ez ditugu deskubritzen, aurrez entzundako istorioetan eta aurrez bizitako egoeretan ezagutzen ditugu. *Antzinako berri-berriak*-en bezala, Zeusen edozein alaba baino disdiratsiago goritzen denean Gloria, aurretik handik igarotakoen gorputzean.

Londres hegoaldeko jendea da Gloria. Tom eta Clive, Kevin eta Jane, Mary eta Brian. Hangoa da Kae Tempest ere —Brooklyn auzoan jaio zen, 1985ean—, eta hori da bere jendea. Haiengan berritzen ditu antzinako jainkoak, eta haiengana zuzentzen da, berdin idaztera esertzen denean, berdin mikroa eskuetan zutitzen denean, kale arteko agertoki inprobisatuetan zein antzoki handienetan, bere-berea duen esan-indarrez hauspotzeko garaiaren arnasa —literaturako ikasle zela hasi zen rapeatzen, eta bost disko, fikzioa, ez-fikzioa, antzerkia eta poesia landu ditu; *spoken word*-aren izarretako bat da, eta *Antzinako berri-berriak*-ekin Ted Hughes saria eman zioten, berrikuntza poetikoa goretsita—.

Nora sortu zaren, ia dena baldintzatzen baitu horrek. Mendebalde harro baten dekadentzia ere sumatzen da Tempesten hitzetan, hark sortzen dituen bizi baldintza estuen gaineko ardua. Baina non ez dira izua eta grina, zintzotasuna eta zitalkeria. Elkarren igurtzian erakusten ditu Tempestek —barnera begiratzeko ausardiari eta afektuei dei eginez—, eta badirudi, horretarako, bere pertsonaien bizi-erritmora —monotonia, kolpeak, askatze uneak—josten duela testua.

Iragankorra eta betierekoa elkar ukitzen, eta tartetik ohar-kabeko bizitza. Hor doan hori da jainkotiar Tempestentzat. Zeru sorberrituaren pean dagoen agure bakartia, bortxatzaileari azkena ateratzen dion neska. Lokatza egokitu zaienen epika auzatzen du, sinetsita badela zerbait eternoa haiengan, egiten dituen, zer eta, jainko —zer eta, akatsei eskerrak—. Mitoa ba-

liatzen du kaosa ordenatzeko artifizio modura. Desira atabikoa, jelsia, porrotaren mikatza, maitatzeko ahala... jainkoak gure artean ziren garaietatik baitaude hemen, sasoko jantziak jantzi, Dioniso, Pandora, Medea berri-berrietan.

Klasikoek bazekiten, hala jaso zuten, musikan datza poesia, eta heldugaitza den hori heltzeko borrokan irauten du. Ahozgoran entzunak izateko ontzen ditu poemak Tempestekek ere, eta inguratzen duen munduarekin dialektikan dena izendatzen du heroi —Joxe Azurmendik galdetzen zuenean bezala, zergatik bere ama ezin zatekeen izan unibertsal, zer behar zen horretarako, pertsona izatea bera ez bazen—. Hondamendia onartu besterik ez dagoela diotenen kontra baliatzen du hitza, jakitun edozein errealitate aldatzeko lengoaia beraren kargu egitea dela lehen baldintza —Kate zena Kae da egun—. Botere hori hedatu nahi du, ezagutzaren ondarea, inorena izatekotan, den-denena dela esan.

Ia hamar urte dira *Antzinako berri-berriak* argitara irten zenetik, eta egileak *The Line Is A Curve* disko berria eman duen urtean heldu da euskarara ekintza heroiko txikien epeia. Orduko indarrez sumatzen da lan berrian ere Tempestekek artearengan duen fedea, nola garai lanbrotsuotan norbere buruarekin lotzeko bide izan daitekeen, eta, batez ere, denboraz haragoko beste dimentsio batez jabetzera garamatzen. *Salt Coast* kantuko hosto-euriak bezala.

Antzinako berri-berriak
liburuko gibelsolasa

OHARRA: Pasarte bakoitzaren
hasieran dagoen orrialde zenbakia
Igelak (2022) argitaratutako
liburuari dagokio.

<https://www.igela.eus/liburua/antzinako-berri-berriak/>



1

[11. orr.]

Garai zaharretan
mitoen bidez genuen geure burua ulertzen.
Nola ulertu, ordea, nola dugun geure burua gorrotatzen,
zer dugun geure burua bilakatu,
nola dugun geure burua bitan zatikatu,
nola dugun geure burua korapilatzen?

Baina oraindik gara mitiko.
Oraindik gaude etengabe nonbait trabatuak, erdi-errukarri
erdi-heroiko.
Oraindik gara jainkozko;
horrexek egiten gaitu egundoko.
Baina ahaztu zaigu, antza, garela anitzez gehiago
dauzkagun gauza guztien batura baino.

[...]

2

[15. orr.]

Baliteke gaur ez egotea akabatu beharreko munstrorik,
ez lurra ereiteko herensuge-hortzik,
baina hauxe dago, euri-ura isurian
teilatu-hodietan behera,
hauxe dago, txoroen berriketa.
Hauxe da hemen duguna,
mito berri-berrien sorta bat:
zure lagunaren parabola, zernahi izan zitekeen
baina drogazale bihurtu zen.

[...]

3

[19. orr.]

Istorioak hemen daude,
istorioak zer dira?
zu eta zure ikara
eta zure esperantza
hain baita antzinakoa
nola kearen mintzoa,
nola odolaren mintzoa,
nola hilzorian den
amodioaren mintzoa.

Hemen daude Jainko guztiak.
Zeren jainkoak gure baitan bizi baitira.

[...]

4

[23. orr.]

Orain, begiratu ongi.

Ilunabarra, asteguna eta gaua,
umeak oihuka eta liskartuak
errepidean, autoak mantsotuz doaz semaforoetara heltzean
eta mutilak neskei txistuka ari, irainak jasoz ordainetan.
Orain, eraman, mantso-mantso, zooma gibelera.
Horra, etorbide horretara, kale horretara, etxe horretara,
Kevin motel mugitzen da,
platera mahai gainean, botilatik garagardo beltza
poliki edontzira, eta eseri da, afaltzear,
Hor ikusten dugu bera, aulki hutsera beha.

[...]

5

[29. orr.]

Orain, eguzki-argiaren distira haizetakoa, Brian etxera doa autoan.
Jane lo utzi berria du hoteleko ohean.
Orain giltzak sartu ditu atean,
horra Maryren zapatak lurrean,
gerra-jokoetan semea alfonbran. Brian bere bizimoldeaz aspertua dago,
emazteari begira gelditu zaio,
Maryk galdera bat du ezpainetan, ez duela ozen esan behar badaki,
baina hortxe dator: non ibili zara? Ikaraz eta jelosiaz begiak beterik,
Brian botak erantzi eta brauki da jezarri.

[...]

6

[33. orr.]

Mary leihotik begira dago autobusean,
pentsatuz zeinen azkar handitzen ari den semea.
Zaila da ze, egunetik egunera,
antza handiagoa du Brianena, eta, zintzo izatera,
Brian gorroto du, zerri nazkantea;
ingurura begiratu eta denak dira bikote gazteak oraindik
maiteminez beteak.
Eta hori dela-eta txiki sentitzen da,
hori dela-eta sentitzen da hauts-izpi ezdeus bat
mahai baten ertzean, haizealdien mehatxupean.

[...]

7

[39. orr.]

Eta Clivek 12 urte ditu orain: bilau koskor bat,
beste ume guztientzat doilorra. Beti arazotan,
beti baten bat zirika. Bazkarirako sosa
ebatsi zuen hasmentan, ondoren bizikleta,
ondoren sukaldeko ganibeta
gozokiak armaz lapurtzeko izkinako dendan.
Mutiko gogorra bera, maitasun askirik sekula jaso gabea,
hazi zen etxean aitak eta amak
ez zuten inoiz egiten hizketan
ez bazen liskarretan,
halaxe ikasi zuen ezen zerbait nahi dugunean esan,
hobe dela indarkeriaz esatea.

[...]

8

[43. orr.]

Beraz, egun batean Terryren etxean
telebistan X-Men ikusten ari direla,
Terryk Cliveri galdera: *Edozer izateko
aukera izanez gero, ze izan nahiko zenuke
handitzen zarenean?*
Ez dut ezer izan nahi, dio Clivek, adi telebistari.
Niri, dio Terryk, *suhiltzailea izatea gustatuko litzaidake ikaragarri.*
Clivek ez dio egiten jaramonik, baina Terry ez da gelditzen isilik.
Jendea salbatu nahi dut eta hori,
andreak erreskatatu sutan dauden eraikinetatik
eta umetxoak eraman eskaileretatik

[...]

9

[51. orr.]

Spider eta Clive handituz doaz
egun oro eman ez elkarren alboan.
urte betetzean, jaka berdina daramate soinean,
berdina dute ibilera,
eta Clive arazotan nahastean
Spider inoiz ez dabil urrunean.
Gero, 17 bete eta Spiderrek neska bat du ikusten,
gustukoa du, oso neska bizkorra, jarri nahi luke mundua zuzen,
batxilergoan ari da, joan nahi du unira...
Spiderrek Cliveri: *Adiskide, ze eginen dut hitz egin diezadan?*
Bera ikusten dudanean baboa sentitzen naiz, ez dakit ze esan.
Zu ez zara baboa, Spider, dio Clivek, joan zaitetz behingoan.

[...]

10

[57. orr.]

Orain 19 urte ditu Tommyk.
Esna ametsetan dabil
bere biziaz zer egin asmatu nahirik:
margolari porrokatua da,
marrazten iragaten ditu gauak,
baina beretzat du dena gordetzen,
ez dio inori deus ere erakusten.
Idazten ditu istorioak, egiten marrazkiak, komiki itxurakoak,
gazte bat da heroia, bizimodu itxuraz aspergarrikoa
azalean: egunez
lan egiten du zakur-jana paketatzen;
aldiz, gauez
erreboltari bat da eta deabru baten kontra ari da borrokan.

[...]

11

[59. orr.]

Neskak urruna dauka begirada, beti izan duen bezala,
begirada mota hori ezezagunei esanarazten diena *laztana*,
hain gaizki ere ez zaude, ez da hala? Haragi bainoago, arima,
kimika bainoago, fisika.

Izena du Gloria,

taberna batean ari da,

bezeroei zerbezak atereaz

Albert and Victoria pubean.

Bere maneran da zorioneko, ez du bizitzatik askorik espero.

Uste du tratu ona merezi dugula denok.

[...]

12

[65. orr.]

Tommy paseatzera atera da. Ia gauero egiten du hala.

Murgildurik doa hiriaren zabaleran, hotzikaraz.

Sentitzen da nola espartar bat Troian.

Sentitzen du urratua duela bihotza.

Aurrez aurreko tabernan argiak daude piztuta.

Barrenera sartu da diru-zorroa sakelan duela ziurtatuta.

Gero, bermatu da barran

begirada botiletan.

25 urte ditu orain. Nonbait hor, erdibidean,

ezerezaren eta infinituaren artean.

[...]

13

[67. orr.]

Hortxe daude jainkoak hondartzan eskutik helduta izarren azpian
hortxe daude jainkoak autoak garbitzen karrikan
hortxe daude jainkoak gurasoei bisitan, iraganaz mintzatzen
biloba txikiei laguntzen mâché paperezko maskarak prestatzen
eskolako antzerkirako, jainkoak irrikaz daude eguerdira arte
noiz lo eginen,
jainkoek egin beharrekoa dagite, jainkoak ahalegintzen ari dira zinez.
Hortxe daude jainkoak maite baten hilkutxaren gainean
lurra jaurtitzen,
beren buruari errua egozten, jakin nahirik zer egin ote duten oker;
[...]

14

[71. orr.]

Betaurrekoen gaintik begiratu dio editoreak.
Haren irriak zakur-kaka bat dirudi belar artean gordea,
haren larruazalak du zingiren kolorea.
Eser zaitetz dio esku lodi txiki bat luzatuz harengana
Tommyk estutu dezan.
Tommy urduri dago, beti izan da haren ametsa
artista bat izatea, hitzen jostuna, komikigilea,
eta nahiz gustatu ez gizon gizen txiker horrek izatea
bere ametsa betetzeko boterea,
27 urte ditu, badaki irri egiten hala behar denean,
hauxe da apika aukera, ez du alferrik galdu behar.
[...]

15

[75. orr.]

Zilarrerria distirarazi, hautsa kendu telebistari,
ordu santua da, larunbat gaua,
Dioniso berria aldagelan: pinpirintzeko unea da,
makillatzaileak arnasari eutsiz mamituz doaz beren ametsa,
efebo erabat beltzarandu bat, eta uzten dute han
ohiko arnasketa eta luzaketak egin behar ikuskizuna hasi artean.
Hariz garbitu bitartean haginak, ispiluari begia kliska,
galtzak titimuturretaraino gora eta taulara doa urrats luzez arinka.
Horra gure aroko Jainko beti-beltzarandua.
Haren aurrean belaunikatzen gara, hari egiten barkamen-erregua,
amek beren umeen haragi gordinaz egiten dute oturuntza
ze zoramen hori, basakeriarako akuilu hori herrialde osoan zabaldu da.

[...]

16

[79. orr.]

Gora egin zuen Tommy emeki-emeki,
ospe pizar bat, aitopen pizar bat erdietsi.
Bat-batean dena zegoen aldatzear;
lanaldi osoko artista haiekin joaten zen zurrutera:
irabazten zuten dirua, haien lana ez zen denbora-pasa hutsa,
lanbide bat zen, argi eta garbi zegoen kontua:
egin zitzakeen irudiak iragarkietarako
nahikoa diru irabazi Glory eta biendako
eta bitartean bere istorio handia zuen idatziko.

[...]

17

[85. orr.]

Eta, hala, gaur osteguna da, hotz eta umel dago zerua,
espaloi-ertzeraino gaua da sartua
eta hantxe dago gotortua. Laster gauerdia
eta hiria, gorputzez josia, inarosten eta hanpatzen da hasia
eta Tommy hantxe dabil: modako taberna bat da,
apartekoa du horma, oihan bat bezalakoa,
eta plastikozko hostoak
sabaitik behera doaz
eta bezeroak apainak dira eta gazteak
eta faltsuak barreak eta hizketak sobera ozenak.

[...]

18

[87. orr.]

Lanean ari da tabernan Gloria,
adiskidetsua da ohiko bezeria,
bata bestearekin hizketan,
txiste zaharrekin barreka,
zahar koitaduak,
hainbestetan hartuak deustarako ezgauzatzat.
Hor dago Sam, betokerra
Darrel deritzon txakurra,
lau hanka eta buru bat
zorro iletsu batean.

[...]

19

[93. orr.]

Strip-tease klub aitzinean a zer ilara luzea,
baina atezainen laguna da Tommyren nagusia
eta barrenera doaz guztiak, aurpegietan irri handiak
eta *nire lagunak zure lagunak dira*
eta neska bat, aurpegi-txikia eta hankaluzea,
hurbiltzen zaie eta laguntzen mahai batera.
Tommy arraro sentitzen da, ez baitu hori nahi, gaizki dago.
Bai, Tom, dio batek, gure oparitxoa orain dator,
eta neska bati keinu batez deituz, *zatoz hona, Michelle, zatoz.*

[...]

20

[97. orr.]

Michelle mehatxari du gainean,
aurpegira begira goitik behera
bera kontsolatuz, itxura batean,
baina naturaz gaindiko zer bat
nagusitu zaio barrean,
eta neskaren gorputzari beha dago
eta goragalea eta narda datozkio
eta ihesean nahi du joan
baina trabatua dago han, kamera mantsoan.

[...]

21

[101. orr.]

Gloriak aldatzen sumatu du giroa...
Bizitza osoan ezagutu ditu arazoak,
sumatzen ahal ditu kilometrotara
irri bat aurpegian nola ezabatzen den igarrita.
Dasta dezake Cliveren hatsaren kiratsa,
Clivek begiratu dio eta berak hari;
begiradak neurtzen dizkiote elkarri,
seinalea noiz helduko adi, eta, hara,
Clive harengana oldartu da,
begiak bete lotsa eta mindura:
Gloriak haren gorrotoa sentitu du, eta haren eskua
zintzurrean, eta antzinakoa zen gorroto hura.

[...]

22

[105. orr.]

Tommy pubera iritsi da, itxita aurkitu du sarrera,
atzeko aldera joan eta kask-kask jo du atea;
zabalik dago, txistuka sartu da tabernara...
Orduantxe ikusi du dena: Spider atean,
Gloria lau hankan eta Clive lurrean,
eta neskaren begietan indar betea oihuka hasi denean,
Tommyk ikusi du sekula ikusi gabeko amorrua.
Zur eta lur, marraztu ohi zituen heroiei deika aritu da...
Superheroi horiek, baina, utzi dute abandonatua,
shockak han ainguratu du, giharrik ezin mugituz:

[...]

23

[109. orr.]

Hortxe daude jainkoak iratzartzen eta kideen laguntza eskatzen,
hortxe daude jainkoak umeak hazten, doktoretza eta masterrak
egin ditzaten.

Hortxe daude jainkoak fisioarekin, oinez ikasten erori ondotik,
hortxe daude jainkoak, sentituz errukarri eta ezin jakinik nori
hots egin,

hortxe daude jainkoak: lurlean dautza, sentituz urrunak eta ezgauzak,
jainkoek ahaztu dute jainkoak direla, eta perfektuak.

Hortxe daude jainkoak besarka pub baten ilunean,
jainko bat jainko bihurtzen da maitatzeko adorea duenean.

Jainko bat beti izanen da jainko bat, zer dagien ez du axola,
baina, halere, saiatu beharra du beste jainkoentzat izaten fidatzeko
modukoa.

[...]

24

[115. orr.]

Bazuten seme bat Clive izenekoa baina Clivek gorroto zuen aita
beti mozkor zegoen-eta bera hezten ari zela;
ukabilaz jo zuen Clive, egin zizkion harramazkak, ireki zauriak,
eta, azkenean, gau batez pubean gelditu zen berandu arte
eta etxera heltzean ez zegoen jada inor hantxe:

Clive eta haren ama joanak ziren maletak egin. Bere aulkian
eseri zen,

eta sakon egin zuen hasperen. Inora ez zihoan gizon bat zenez,
zer espero zezakeen?

[...]

25

[117. orr.]

SuChin maitagarria da, sexya, gaztea eta goxoa;
Irribarre egiten dio bazkaltzerakoan
elkarrekin biak hondartzan
eta senti dezake norbait dela bilakatzen ari.

Hutsa baino makurragoa izan zeneko bizitza bat kenduz gainetik,
jendeak uste du halako gizonak higuigarriak direla, badaki;
baina bost axola berari. Zoriontasuna du aurkitu han
eta agure batek ere behar du maitasun apur bat.

[...]



galdu al zara Londreseko aldirietan?

1. Zein da Terryren ezizena?
 (a) Lyon
 (b) Monkey
 (c) Spider
2. Hauxe da Brianek bere baitarako dioena hil baino lehentxeago, osatu esaldia: “Zahar gaixoa ni; gaztea nintzelarik izan nahi, ez nintzen izan gai, baina nago orain”.
 (a) beste modukoa / inoiz / Thailandian
 (b) zenbat gauza / sekula / ondo
 (c) hainbeste gauza / inoiz / hementxe
3. Noiz oheratzen dira elkarrekin lehenengo aldiz Tommy eta Gloria?
 (a) Elkar ezagutzen diren gau berean
 (b) Ezagutu eta handik egun batzuetara
 (c) Ez dira sekula elkarrekin oheratzen
4. Osatu pasartea: moraltasunik ez dagoenean, justiziarik ez dugunean, orenen garrantzia mozkinetan neurtzen denean, zaila da gazte batentzat...
 (a) Gizon aparta bihurtzea
 (b) Gizon arrunta bihurtzea
 (c) Gizon zintzo bihurtzea
5. Terryk Cliveri galdetzen dio zer izan nahi duen handitzen denean. Zer erantzuten dio Clivek?
 (a) Suhiltzailea izan nahi duela
 (b) Erizaina izan nahi duela
 (c) Polizia izan nahi duela

6. Zer esaten dio Gloriak Tommyri, laneko arrakastarekin zoratzen hasten denean?

- (a) Hain denbora gutxi behar badute zu ezagutzeko, denbora gutxi beharko dute zu ahazteko
- (b) Hain denbora gutxi behar badute zu ezagutzeko, denbora asko beharko dute zu ahazteko
- (c) Hainbeste denbora behar badute zu ezagutzeko, denbora gutxi beharko dute zu ahazteko

7. Poemaren lehen orrietan bi bikote aipatzen ditu idazleak:

Kevin eta Jane eta...

- (a) Mary eta Brian
- (b) Clive eta Mary
- (c) Mary eta Tommy

8. Non ezagutzen dute elkar Tommyk eta Gloriak?

- (a) Beste taberna batean
- (b) Parkean
- (c) Gloriak lan egiten duen tabernan

9. Osatu esaldiak: “Eta Clivek 12 urte ditu orain; koskor bat, beste ume guztientzat doilorra, beti arazotan, beti baten bat”.

- (a) alproja / mintzen
- (b) bilau / zirika
- (c) gaizkile / izorratzen

10. Zer egiten du Tommyk Gloria, Spider eta Clive borrokan topatzen dituenetan tabernan?

- (a) Gloriari laguntzen dio
- (b) Ez du ezer egiten
- (c) Cliverekin borrokan hasten da





Antzinako berri-berriak
Hernanin irakurri zen
jendaurrean
2023ko martxoaren 30ean
Yausikan